


LEZOKO BERDEGUNEAK

Herri diagnostikoa. (Agenda 2030)



2024-2025 ikasturtea

AGENDA 2030


Ikasturte honetan bai eskolan bai herrian EA2030-ko

13. helburua landu dugu: “ Klimaren aldeko ekintza”

Aurten motibazio eta diagnostiko faseak egin ditugu. Datorren urtean ekintza planak diseinatu eta burutuko ditugu

Eskolan, hondakinekin dugun arazoa diagnostikatu dugu.

Herrian, Lezoko berdeguneen egoera aztertu dugu klima aldaketaren ikuspegitik.



AZTERTU DITUGUN BERDEGUNEAK:

-PISBE PARKEA

- ZUBITXO

-TIROLINA PARKEA

-EUSKAL HERRIA PLAZA

-MARKESANE PARKEA

-SAGARDIANDIA PARKEA

URRATSAK

Berdeguneak aztertu baino lehen,
berdeguneek klima aldaketaren aurrean
dituzten onurataz hausnartu genuen
(giza osasunarentzat, ingurumen onurak
eta abar...)

Ondoren, taldeka, egun batean, herrian
zehar, taldeka ibili ginen aipatutako 6
berdeguneak bisitatzen eta datuak
biltzen.

Aztertu ditugun gauzak:

- Itzala, iturriak, komunak eta
atseden tokiak dituzten
- Irisgarritasuna
- beroaren aurrean babesteko balio
duten
- Proposamenak

PISBE PARKEA

Pisbe

Pisben belar eta zuhaitz asko daude, piknik mahaiak eta umeentzako parke bat ere. Arrainentzako urmael bat dago. Txakurrak ateratzeko leku oso ona da belar asko dagoelako, gainera iturri bat dago.



Parkearen deskribapena



01

Zuhaitz asko daude, oso handiak dira beraz, itzal asko ematen dute mahaiaik dauden inguruan. Parke inguruan ez dago itzal asko.

02

Arrainak dauden lekutik gertu iturri bat dago.

03

Ez dago komunik inguruan.

Proposamenak:

Belarra gehiagotan moztu
Mahaiak eta parkea berritu
Zakarrontziak eta iturriak jarri
Txakurrak paseatzeko belardi bat utzi
Mahaietik parkera dagoen ibilbidea, gurpildun aulkidunentzat egokitu

ZUBITXO

Erreka polita eta lasaia da.

DESKRIBAPENA



Zubitxo erreka eremu txikia da.

Ez da erabiltzen ez daudelako eserlekurik, iturririk ezta zakarrontzirik.
Itzaletan dago eta ondoan taberna bat dago freskagarri bat erosi nahi baduzu

Zubian lasai egon zaitezke erreka entzuten

Oso zaharkituta dago, baina uste dugu berritzen bada leku polita izan daitekeela, erreka, belardia eta nahiko lekua dagoelako.

Imaginazio asko baduzu arratsalde on bat pasatzeko aukera duzu .

ITURRIAK ETA KOMUNAK

KOMUNAK

Berdegunean ez daude,
baina ondoko tabernan
aurkitu daitezke erraz.

ITURRIAK

Ez daude

ITZALA

Dagoen itzala
inguruko etxeek
sortzen dute

HOBEEKUNTZAK EDO PROPOSAMENAK

- 1 Belarra moztu, zuhaitzak landatu eta ura garbitu
- 2 Zakarrontziak, komunak eta iturriak jarri
- 3 Eserlekuak jarri

TIROLINA PARKEA



EZAUGARRIAK

Tirolina duen parke txiki bat da.

Haurrak eta txakurrak jolasteko

tokia da

Tirolina ez dago ondo, zaharkitua

eta zikina dago

Jendeak ez du parkea ondo

zaintzen zabortege gisa erabiltzen

duelako



ITZALA

Bai, dauden zuhaitzei eta
markesane eta frontoiko paretari
esker

ITURRIA/KOMUNAK

Ez dago ez iturririk ez komunik

IRISGARRITASUNA

Bertara iristeko ez dago arazorik

LEZO 2030
Izan *herrigile*



Lezoko Unibertsitateko Udala

PROPOSAMENAK

- ▶ Tirolina konpontzea
- ▶ Belarra moztea

Euskal Herria parkea

LEZO 2030
Izan herrigile



Lezoko Unibertsitateko Udala

DESKRIBAPENA

Bankuak, jolastokia, piknik mahaiak, zakarrontziak,
bi iturri eta itsasontzi forma duen eskultura bat
daude.

Gimnasia egin daiteke bertan
Normalean umeak joaten dira jolastera eskola
ondoan dagoelako.

Urtebetetzeak ospatzen dira parkean ere.



Itzala/komunak/iturriak

- Itzal gutxi dago, bakarrik banku inguruan dauden zuhaitzek ematen dutena.
- Iturriak badira.
- Komunik ez dago, baina parketik oso gertu badaude batzuk eta ez dago arazorik hara joateko, horregatik pentsatzen dugu ez dela beharrezkoa parke honetan komunak jartzea.



Irisgarritasuna

Oinez joateko egokia da eta sarrera egokia du, toki askorekin. Denek parkera ondo iristeko aukera dute

HOBETZEKO GAUZAK

- Parkean dauden gauzak berritzea, adibidez: mahaiak, lurra ...
- Estalki bat jarri berotik edo euritik babesteko.



Lezoko
BERDEGUNEAK
MARKESANE

Lekua:



Markesane Lezon daukagun parke natural bat da. Frontoia eta Euskal Herria plazaren artean dago kokatua. Bertan banku batzuk daude, baita itzala egiten duten zuhaitzak ere.

Itzala/komunak/iturria

- Itzala badago, zuhaitzei esker. Parkeak beroaren aurrean babesteko aukera ematen du eta atsedeen hartzeko banku ugari daude
- Nahiz eta parkean iturririk ez egoe, gertu badaude batzuk.



Komunak, Markesane azpian daude

Irisgarritasuna

- Edozein bertara joan daiteke zailtasun handirik gabe

➔ PROPOSAMENAK

- Belarra moztu, zaindu





DESKRIBAPENA

Haurrentzat parke bat da, inguruan belardi bat eta zuhaitz asko daude. Belardian konpostagune txiki bat dago







PROPOSAMENAK

- Parkean dauden elementuak konpondu

